



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 10a

143. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legebiltzarrera igor dezan 2013ko ekainaren 26ko mozioan eskatu zitzaion plana, Nafarroako egileek sortutako musika ezagutzera emateari buruzkoa. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita publizitatea erretira dezan “Carta a un militar español” izeneko I. lehiaketaren deialditik. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako autonomoek eta enpresek finantzaketa lortu ahal izate aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (3. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer arrazoi dituen Iberdrolaren akzioak Sodenaren bidez besterentzeko, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (3. or.).
- Galdera, gaixo onkologikoak Nafarroako Erriberatik Iruñera eramateko garraio-zerbitzuari eusteari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (4. or.).
- Galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bati buruzkoa, zeinaren bidez baliogabetzen baita Eliza ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzera behartzen zuen Nafarroako Parlamentuaren Legea, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (5. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legebiltzarrerera igor dezan 2013ko ekainaren 26ko mozioan eskatu zitzaion plana, Nafarroako egileek sortutako musika ezagutzera emateari buruzkoa

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2013ko azaroaren 27an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legebiltzarrerera igor dezan 2013ko ekainaren 26ko mozioan eskatu zitzaion plana, Nafarroako egileek sortutako musika ezagutzera emateari buruzkoa."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait azkarren aurkez dezan, eta betiere abenduaren 31 baino lehen, Legebiltzarrak 2013ko ekainaren 26an onetsitako mozioan agindutako plana. Plan horrek ez dakar

nahitaez aurrekontu-esleipena handitzea, baizik eta dauden baliabideak aprobetxatzea Nafarroako egileek sortutako musikaren presentzia handiagoa lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak bere nahigabea adierazten du Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren jokabide tematia dela-eta –ez ditu betetzen Legebiltzar honek onetsitako erabakiak–, eta beretzat gordetzen ditu Parlamentu honek onetsitako erabakiak betearaztearen Erregelamenduak jasotako tresna guztiak erabiltzeko aukera."

Iruñean, 2013ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da publizitatea erretira dezan "Carta a un militar español" izeneko I. lehiaketaren deialditik

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da publizitatea erretira dezan "Carta a un militar español" izeneko I. lehiaketaren deialditik."

Hezkuntza Batzordeak, 2013ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztuta-

ko mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako autonomoek eta enpresek finantzaketa lortu ahal izate aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako autonomoek eta enpresek finantzaketa lortu ahal izate aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den abenduaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu Nafarroako autonomoek eta enpresek finantzaketa lortu ahal izan dezaten?

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer arrazoi dituen Iberdrolaren akzioak Sodenaren bidez besterentzeko.*ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer arrazoi dituen Iberdrolaren akzioak Sodenaren bidez besterentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den abenduaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

• Nafarroako Gobernuak zer arrazoi du Sodena bere ente instrumentalaren bidez Iberdrolaren akzioak besterentzeko?

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, gaixo onkologikoak Nafarroako Erriberatik Iruñera eramateko garraio-zerbitzuari eusteari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gaixo onkologikoak Nafarroako Erriberatik Iruñera eramateko garraio-zerbitzuari eusteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Gaixo onkologikoak Nafarroako Erriberatik Nafarroako Ospitalegunera eramateko garraio-zerbitzuari eusteari buruz Osasun Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa (Erregistroko 8-13/PES-00210 zenbakia darama).

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bati buruzkoa, zeinaren bidez baliogabetzen baita Eliza ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzera behartzen zuen Nafarroako Parlamentuaren Legea.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Konstituzio Auzitegiaren epai bati buruzkoa, zeinaren bidez baliogabetzen baita Eliza ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzera behartzen zuen Nafarroako Parlamentuaren Legea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervásek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du abenduaren 12ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren ustez, sozialki bidezkoa eta demokratikoa al da Konstituzio Auzitegiaren ebazpena, zeinaren bidez baliogabetzen baita Nafarroako Parlamentuaren Legea, Eliza behartzen zuena gurtzarako ez diren jabetzen kasuan Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaintzera? Gobernuaren ustez, ebazpenak Nafarroaren eskumenak errespetatzen al ditu?

Iruñean, 2013ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

